

ELKARTOKI

ESKOLA ETA ARTISTEN DEIALDI IREKIA

Elkartoki eskolako patioen markoan garatzeko programa da, dinamika eta harreman komunitarioak hobetuko dituzten artefakto eta interbentzio arkitektoniko zein artistikoen bitartez espazioa eraldatzea proposatzen duena.

Eskoletako patioek kalitatezko ikaskuntza, jolas eta harremanen eraikuntzan garrantzia duten espazioak diren heinean, programak genero berdintasuna, elkarbizitza eta balore inklusiboak landuko dituzten artefakto eta sorkuntza artistiko zein arkitektonikoak eraikitzea bilatzen du. Espazioaren eraldaketarako proiektua izateaz haratago, prozesu pedagogiko eta partehartzailea ere bada: ikasleek espazioa behatu eta honi buruz hausnartzen dute, hobekuntzarako ideiak asmatu eta proposamen zehatzak adosten dituzte, ondoren lan kolektiboaren bitartez eraikitzeko.

AURREKARIAK

Elkartokik dagoeneko lau urtetako ibilbidea du eta 3 ediziotan hainbat ikastetxetan aritu da: J.B. Zabala ikastetxean, Karmelo Ikastolan, Algortako San Nikolas Ikastolan, Lekeitioko eskola publikoan eta Azpeitiako Karmelo Etxegarai ikastolan. Urte hauetan programaren metodologia eta ikuskera testuinguruetan eta prozesu anitzetan erabili dira, bitartekaritza eredu ezberdinak burutu direlarik:

- 2014-15. Ikasgelan eta tailerretan oinarritutako programa.
- 2015-16. Iraupen luzeko elkarsorkuntza prozesu zabala eskola osoarekin eta tailer artistikoak, diseinu tailer eta beste partehartze espazioekin elkartuz.
- 2016-17. Irakaslegoarentzako trebakuntza, ahalduntze eta aholkularitzan oinarritutako prozesua, non atal sortzailea eta espazioaren eraldaketaren garapena artista egoilariekin egin den.

2017-18 EDIZIO HONETAKO PLANTEAMENDUA

Aurreko edizioetan bezala, Elkartokik espazioaren erabilera edo dinamiken eta eraikuntza eta jabetze kolektiboaren arteko harremanekin esperimintatu nahi du.

Bestetik, ikastetxea eta bere espazioaren esparruan, helburu zehatzago batzuk zehazten dira:

- Jolastokietan ematen den estandarizazioa eta genero hierarkizazioa gainditzeko gai izango diren artefcto/lan artistiko edo arkitektonikoak sortu.
- Eskola komunitatea diseinuan lengoia artistikoa eta sorkuntza kolektiboan trebatu.
- Lan kooperatiboa eta partehartzailearen inguruan esperientzia eraldatzailea eta positiboa sortu.

Aldi berean, bitartekaritza ereduari erantzunez, edizio honek Elkartoki garatzeko era berriak frogatu nahi ditu, ikastetxeetan esperientzia autonomo eta proiektu anitzak egitea ahalbidetuko dutenak. Gainera, ikastetxe komunitateen, artisten eta bitartekarien arteko ikaskuntza harremanak sustatzea bilatzen du.

Hau horrela, edizio honek aurrekoekiko berrikuntzak dakartza, bai iruapenari dagokionez, baita jarduera eta faseei ere. Elkartoki 2017-18-n 3 ikastetxe eta 3 artista/sortzaile (edo artista/sortzaile talde) aukeratuko dira, 2017-2018 ikasturteko lehen hiruhilabeteen bikoteka elkarlanean arituko direnak. Eskola bakoitzean garatuko den prozesua eskolak aurretik egindako lan eta ibilbidera mugatuko da eta bbere behar eta asmoei moldatuko da; hau da, Elkartokiren 3 faseetako batean edo batzuetan lan egingo da: Jabetu, Asmatu y/o Eraldatu.

Zentroek, artistek eta TIPI bitartekariak elkarrekin egiteko lan prozesua ondorengo lan faseetan garatuko da:

1. BARNETEGIA

Irailaren hasieran, asteburu batez, 3 eguneko topaketa intentsiboa egitea proposatzen da, non deialdi honetan parte hartuko duten 3 proiektuetako pertsonak (hezitzaileak eta artistak) formakuntza eta aholkularitza espezifikoa jasoko duten. Egun hauetan 3 ikastetxeeko pertsona eta 3 artistei eskola bakoitzarentzako lanerako marko komun

bat ezartzen eta proiektua definitzen lagunduko zaie. Topaketa honetan formakuntza eta elkarlanerako saioez gain, elkarbizitza espazio informalak tartekatuko dira, lan talde berriek elkar ezagutu dezaten.

2. ELKARTOKI ESKOLETAN GARATZEA

Behin ikastetxe bakoitzeko programa zehatza definituta dagoela, 3 eskola partehartzaileek Elkartoki programa garatuko dute artista kolaboratzaileen laguntzaz, 2017ko Urria eta Abendua bitartean (3 hilabetez). Bitartekariak programan zehar aholkulari lanak egingo dituzte, ikastetxe eta artistekin gutxienezko 3 jarraipen saio bateratu eginez.

Programaren garapenean zehar, bitartekariak ikastetxe bakoitzeko programaren ekintzak elkartoki.com blogean eta sareetan hedatuko dituzte.

3. ITXIERA ETA EBALUAZIOA

Programaren itxierarekin batera, eskolek prozesuaren memoria bat entregatuko dute, egoitzan zehar gauzatutako tailerrak azalduz.

Programa eta egoitza esperientzien balorazioa egiteko xedez, partehartzaileen ebaluazio bateratua egingo da eta horretarako, 3 ikastetxe eta 3 artista egoilari eta bitartekarien arteko saio bateratu bat egingo da.

Gainera, edizio honetan Elkartoki taldeak proiektuaren pilotajea eta ikerketa egingo ditu bere garapenari paraleloki (ElkartokiLAB). Honen helburua aurtengo planteamenduak jarraiki, zentro gehiagotara eraman eta eskalatzeko aukerak aztertzea izango da.

ESKOLEN DEIALDI IREKIA

Deialdi honek aurtengo Elkartoki programan parte-hartzeko 3 ikastetxe bilatzen ditu, aukeratutako ikastetxeek haien testuingurura egokitutako programa garatu dezaten, bitartekaritza talde eta artista kolaboratzaile baten laguntzaz. Hau aurrera eramateko, baliabide eta dispositibo ezberdinak jarriko dira ikastetxeen eskura.

PARTEHARTZAILEAK

Deialdi honetan Euskal Autonomi Erkidegoko Lehen Hezkuntza zein Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei zuzenduta dago. Ikasleek eskolako espazio komunetan parte-hartze aktiboa izan dezaten proiektuak sustatu nahi dituzten ikastetxeak bilatzen dira.

DIRULAGUNTZA

Aukeratutako ikastetxe bakoitzarentzako 1.000,00€-tako dirulaguntza bat dauka deialdi honek, tailer eta interbentzioetarako beharrezko material eta erremintetan gastatzeko. Dirulaguntza hau baldintza bati lotuta dago; ikastetxeak tailer eta interbentzioetarako beharrezko material eta erremintetan gastatzeko 2.000,00€-tako (BEZa barne) partida gordetzeari lotuta.

ESKAEREN AURKEZPENA

Deialdia 2017eko Maiatzaren 8tik Ekainaren 12ra arte irekita egongo da, 13:00ak arte. Eskuera egiteko ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Deialdiko fitxa beteta (I. Eranskina).
- Hezkuntza proiektuaren deskribapena eta eskolan garatutako esperientzia berritzaileak edota sormena erreminta gisa erabiltzen dituztenak.
- Deialdian parte-hartzeko motibazioa. Proiektuan inplikaturiko den eskola-komunitatea eta irakasleagoa zehaztu beharko da, baita eskola programazio barruan eskeiniko dion espazioa, denbora eta talde kopurua.

Proposamenak dokumento digital batean bidaliko dira, pdf. edo bestelako testu dokumento batean ondorengo helbide elektronikora:

kaixo@wearetipi.co. Sortu daitezkeen zalantza ala galderekin kaixo@wearetipi.co email-era idatzi ala 627 393 549 telefonora deitu.

BALORAZIO IRIZPIDEAK ETA EBAZPENA

Hautaketa prozesuan deialdi honen oinarriekin bat egiten duten proiektuak baloratuko dira eta Elkartoki taldeak ondorengo irizpideak kontuan hartuko ditu:

- INTERESA ETA MOTIBAZIOA

Proiektuarekiko zentruaren interesa baloratuko da, ikastetxearen abiada puntua eta hausnarketak aintzat hartuz. Prozesuan parte hartzeko motibazio erreala jakitea bilatuko da, baita etorkizunera begirako proiektuaren ikuspegia ere. Hau dela-eta, proiektuaren ibilbidea bermatzearren, eskola-komunitatea eta klaustroa eskaeraren inplikaturata egotea eskatuko da.

- IRAKASLEGOA ETA ESKOLA-KOMUNITATEAREN INPLIKAZIOA

Programan zehar eskola-komunitatea eta irakaslegoarengandik aurreikusitako inplikazioa baloratuko da, programa koordinatu eta produzitzeko pertsona zehatzak izendatzeko aukera azterturik. Irakaslegoaren prestutasuna garrantzizkoa izango da, proiektuaren garapen onerako dedikazio eta jarraipen maila altuak beharrezkoak direlako.

- ESKOLA PROGRAMAZIOAN TXERTAKETA

Ikastetxeak programari emango dion espazioa eta tokia baloratuko da, eskola programazio eta egutegiarekin uztartzeko moduari so eginez. Programa era transbertsalean lantzen duten ikastetxeak positiboki baloratuko dira, irakasgai ezberdinak (Plastika, Ingurunea...) edota espazio ezberdinak (Eskola Agenda 21, hezkidetza programak) proiektuarekin konektatzen dituztenak, alegia.

Balorazioaren emaitzak Ekainaren 19ean jakinaraziko zaizkie emailaz eta telefonoz eskolei.

KONPROMEZUAK

Elkartoki taldeak honakoa betetzeko konpromezua hartuko du:

- Proiektua garatzeko baliabide pertsonalak ziurtatzea. Horretarako bitartekari bat egongo da prozesu osoan zehar.
- Programaren formakuntza eta aholkularitza lanak egitea.
- Eskola bakoitzarekin elkarlanean aritzeko Egoitza Artistiko bat ahalbidetzea.
- Prozesuaren eraikuntza alderdietan aholkularitza lanak egitea.
- Elkartoki-ren komunikabide eta sare sozialetan jarraipena eta hedatze lana egitea.

Aukeratutako ikastetxeetako arduradunek hurrengo baldintzak betetzeko konpromezua hartuko dute:

- Proiektua aurrera eraman eta hortarako lan-talde edo arduradunak izendatzea.
- Programaren saioen garapena eskola orduen barnean egitea.
- Adostatutako lan saioak, egutegia eta ordutegiak errespetatzea.
- Programaren itxieran esperientziaren memoria entregatu eta ebaluazio saioan parte-hartzea.
- Programaren garapenean zehar, ikastetxeak bitartekari taldeari lagunduko dio Elkartoki programaren jarduerak komunikatzeko beharrezko ekintzetan, irudi eta bideoen bitartez.
- Programaren tailer eta interbentziotarako material eta erremintetan gastatzeko 2.000,00€-tako diru kopurua bideratzea.

INFO +
elkartoki.com
kaixo@wearetipi.co
627 393 549

Bilbon, 2017ko Maiatzean

I. ERANSKINA. ESKATZAILEAREN FITXA

IKASTETXEAREN DATUAK

Ikastetxearen izena:

Helbidea (kalea, hiria eta posta kodea):

Harremanetarako pertsonaren izen-abizenak:

Harremanetarako pertsonaren email-a:

Harremanetarako pertsonaren telefonoa:

Ikastetxearen URL-a:

Ikastetxe mota X batekin adierazi:

Ikastetxe Publikoa

Itaunpeko Ikastetxea

Ikastetxe Pribatua

PARTEHARTZAILEEI BURUZKO DATUAK

Bitartekaritzan parte hartuko duen irakaslegoaren kopurua:

Programan parte hartuko duten umeen mailak eta maila bakoitzeko ikasle kopurua:

PROIEKTUAREN EGOERARI BURUZKO INKESTA

Ikastetxeko patioaren inguruan zeozer egin al da orain arte? Zer?

Zein lan fasetan dago ikastetxea?

ESPAZIOAZ JABETU (analisi)

ESPAZIOA ASMATU (elkarsorkuntza)

ESPAZIOA ERALDATU (eraikuntza kolektiboa)

ATXIKITZEN DEN DOKUMENTAZIOA

- Parte-hartzea eskatzeko motibazio eskutitza
- Hezkuntza proiektuaren deskribapena eta esperientzia berritzaileak

Data:

Sinadura: